Bestelako Xedapenak

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA OSASUN SAILA

2386

81/2009 DEKRETUA, apirilaren 21ekoa, Arabako «Aspanafoha Asociación de Padres de Niños Oncohematológicos» elkartea herri-onurakoa dela aitortzen duena.

Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legearen 42. artikuluak honela dio: Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorrean inskribatuta dauden elkarteak herri-onurakotzat aitortu ahal izango dira, baldin eta elkarteok, beren jardueren bitartez, interes orokorra edo guztien ongia lortzen laguntzen badute, eta, horretarako, eskuzabaltasun-, altruismo-, elkartasun- eta aniztasun-balioak nabarmen gauzatzen badituzte.

Eta horretan oinarriturik, Arabako Aspanafoha Asociación de Padres de Niños Oncohematológicos elkarteak aitorpen hori eskatu du; izan ere, gaixo horientzako laguntza egokia lortzearren, Gizarte eta erakundeak sentsibilizatzeko burutzen dituen jarduerak direla-eta, uste baitu merezi duela herritarrentzako erakunde onuragarri gisa aitortua izatea.

Erakunde eskatzailea 1990eko apirilaren 4an inskribatu zen Elkarteen Erregistro Orokorrean, A/2006/1990 erregistro-zenbakiarekin. Erakundeak Arabako Lurralde Historikoan dihardu batik bat.

Eratu zenetik, Arabako Aspanafoha Asociación de Padres de Niños Oncohematológicos elkarteak bere helburuak lortzeko beharrezko jarduera guztiak egiten ditu: osasun arloko jarduerak, familientzako laguntza-arloko jarduerak, heziketa-atzerapena ekiditeko eskola programa, fisioterapia-programak, aisialdi-jarduerak, boluntarioen trebakuntza, informazio-jarduerak, haurren minbiziaren arazoei buruzko informazioa zabaltzea eta horiekiko aholkularitza ematea.

7/2007 Legearen 45.2 artikuluan agindutakoarekin bat etorriz, herri-onurako aitorpena Jaurlaritzaren Kontseiluak erabakitako dekretu baten bidez egingo da. Dekretu-proposamena kasuan kasuko sailek —gaiaren arabera— eta, betiere, justiziaren arloan eskuduna den sailak egingo dute, eta azken sail horrek izapidetuko ditu bai prozedura, bai bertan sor daitezkeen auzi guztiak. Agindu hori betez, dagokion espedientea instruitu da, eta, ondoren, sailei eta instituzioei eskatu zaizkien txostenak erantsi zaizkio espedienteari. Txosten horietan, bestalde, Arabako Aspanafoha Asociación de Padres de Niños Oncohematológicos elkartea herri-onu-

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL DEPARTAMENTO DE SANIDAD

2386

DECRETO 81/2009, de 21 de abril, por el que se reconoce de utilidad pública a la Asociación Aspanafoha Asociación de Padres de Niños Oncohematológicos de Álava.

El artículo 42 de la Ley 7/2007, de 22 de junio, de Asociaciones de Euskadi, establece que podrán ser reconocidas de Utilidad Pública, las asociaciones inscritas en el Registro General de Asociaciones del País Vasco, que contribuyan, mediante el desarrollo de sus actividades, a la consecución del interés general o del bien común realizando de manera significativa los valores de generosidad, altruismo, solidaridad y pluralismo.

A su amparo, la Asociación Aspanafoha Asociación de Padres de Niños Oncohematológicos de Álava ha solicitado la declaración mencionada, por entender que las actividades que desarrolla en pro de sensibilizar a las Instituciones y a la sociedad en general para obtener la asistencia ideal a estos enfermos, la hacen merecedora del reconocimiento como entidad de Utilidad Pública.

La Asociación solicitante es una entidad inscrita en el Registro General de Asociaciones el 4 de abril de 1990, con el número A/2006/1990, que extiende su ámbito de actuación principalmente al Territorio Histórico de Álava.

Desde su constitución, la Asociación Aspanafoha Asociación de Padres de Niños Oncohematológicos de Álava realiza todas las actividades precisas para la consecución de sus objetivos, esto es, actividades de carácter sanitario, asistencial para dar apoyo a la familia, programa escolar para evitar retraso educativo, programas de fisioterapia, actividades de tiempo libre, formación de voluntariado, actividades de información, asesoramiento y divulgación de la problemática del cáncer infantil.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 45.2 de la citada Ley 7/2007, la declaración de Utilidad Pública se realizará mediante Decreto acordado en Consejo de Gobierno, a propuesta de los Departamentos que corresponda en función de la materia y, en todo caso, del departamento competente en materia de justicia, el cual tramitará el procedimiento y dirimirá cuantas cuestiones pudieran surgir en él. En cumplimiento de dicho mandato, se ha instruido el oportuno expediente, habiéndose incorporado al mismo los informes emitidos por los Departamentos e instituciones requeridos al efecto, en los que manifiestan su parecer favorable a

rakoa dela aitortzearen alde agertzen dira bai sailak, bai instituzioak.

Ondorioz, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuaren eta Osasun sailburuaren proposamenez, interesaturik dauden erakunde eta entitateek emandako txostenak ikusi ondoren, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2009ko apirilaren 21an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra.– Aspanafoha Asociación de Padres de Niños Oncohematológicos elkartea, Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorrean A/2006/1990 zenbakiarekin inskribatuta dagoena, herri-onurakoa dela aitortzea, bere jardueraren bidez interes orokorraren alde egiten duela uste baita.

Horrekin batera, aitorpen horri dagozkion eskubideak aitortzen zaizkio, hain zuzen ere, Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2002 Legeko 43. artikuluan jasota daudenak.

Vitoria-Gasteizen, 2009ko apirilaren 21ean.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua,
JOSEBA AZCÁRRAGA RODERO.

Osasun sailburua,
GABRIEL M.ª INCLÁN IRIBAR.

la declaración de la Asociación Aspanafoha Asociación de Padres de Niños Oncohematológicos de Álava como entidad de Utilidad Pública.

En su virtud, a propuesta de los Consejeros de Justicia, Empleo y Seguridad Social y de Sanidad, vistos los informes emitidos por los entes y organizaciones interesados, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno, en su reunión celebrada el día 21 de abril de 2009,

DISPONGO:

Artículo único.– Declarar de Utilidad Pública a la Asociación Aspanafoha Asociación de Padres de Niños Oncohematológicos de Álava inscrita con el número A/2006/1990 en el Registro General de Asociaciones del País Vasco, por considerar que contribuye a la promoción del interés general mediante el desarrollo de sus actividades.

Así mismo, se le reconocen los derechos inherentes a esta declaración previstos en el artículo 43 de la Ley 7/2002, de 22 de junio, de Asociaciones de Euskadi.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 21 de abril de 2009.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,
JOSEBA AZCÁRRAGA RODERO.

El Consejero de Sanidad,
GABRIEL M.ª INCLÁN IRIBAR.